

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	EHUNGINTZAKO MATERIAL, PRODUKTU ETA PROZESUEN HASTAPENAK	Iraupena	50
Kodea	MF0177_1		
Lanbide-arloa	EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA		
Lanbide-eremua	Ehun- eta larru-jantzigintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Errezelak eta dekorazio-osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Ehun-produktuak egiteko erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea (zeharkakoa)	Iraupena	30
	Ehun-produktuen mozketa, mihizadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)		60
	Errezelak eta estoreak egitea.		50
	Ehun-produktuak egiteko erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea (zeharkakoa).		30
	Ehun-produktuen mozketa, mihizadura eta akaberako oinarrizko teknikak (zeharkakoa)		60
	Kuxinak eta etxeko oihalak egitea.		50
	Dekorazio-osagarriak egitea		40
	Errezelen eta dekorazio-osagarrietako eragiketa osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0177_1 MATERIALAK ETA PRODUKTUAK HAUTATZEA JANTZIGINTZA-PROZESUETARAKO

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Errezelak eta jantzigintzako osagarriak egiteko prozesuetan gehien erabiltzen diren zuntz, hari eta ehunak ezagutzea, eta entsegu-prozedura errazen bidez bereiztea.

EI1.1 Ehun-gai eta -produktuak identifikatzea, jatorriaren arabera.

EI1.2 Ehun-gai eta -produktuen ezaugarriak eta propietateak deskribatzea.

EI1.3 Zuntz, hari eta ehunen laginetan oinarrituz, ikusmen- eta ukimen-entseguak egitea, izan daitekeena eta ez dena adieraziz.

EI1.4 Ehun-gaiak ezagutzea, sugarrezko errekuntzaren entseguetan duten jokabidearen arabera: erretzeko modua, askatutako usaina, zimurtu edo urtu egiten den, sortzen duen hondar edo errautsa.

A2: Ehun-produktuek (hariak, ehunak, ehundu gabeko oihalak) fabrikazio-prozesuekiko dituzten propietateak identifikatzea.

EI2.1 Hariak, ehunak eta ehundu gabeko oihalak ekoizteko oinarrizko prozesuak deskribatzea, eta sarrerako eta irteerako produktuekin erkatzea.

EI2.2 Harien laginak begiratzea eta muturrek edo zuntzek zer eratako bihurtura eta/edo birbihurtura duten identifikatzea, ezaugarrien eta propietateen arabera.

EI2.3 Ehunen laginetatik abiatuz, ehuna desegitea eta haren egitura ondorioztatzea, ezaugarrien eta propietateen arabera.

EI2.4 Ehundu gabeko oihalen laginak begiratzea, eta haien ezaugarri eta propietateak adieraztea.

EI2.5 Fabrikazio-okarren ondorioz ehun-produktuetan sortzen diren akats arruntenak identifikatzea, laginetan eta/edo argazkietan.

A3: Lehengaiei egin beharreko tratamenduak (zuritzea, tindatzea, aprestua egitea, etab.) eta tratamendu horiek lehengaiei ematen dizkieten ezaugarriak erlazionatzea.

EI3.1 Tratamendu nagusiek ehun-materialei ematen dizkieten ezaugarri eta propietate nagusiak deskribatzea, laginak behatu eta aztertuz.

EI3.2 Ehunak hobetzeko prozesuen eskemetako oinarrizko eragiketak identifikatzea.

EI3.3 Hari, ehun eta ehundu gabeko oihalen laginak behatzea, eta horiek jasotako tratamenduak ondorioztatzea, ezaugarri eta propietateen arabera.

EI3.4 Ehunak hobetzeko tratamenduen akatsen ondoriozko akats ohikoenak ezagutzea ehun-produktuen laginetan.

A4: Ehun-materialak aurkeztu, kontserbatu, manipulatu eta egokitze oinarrizko kondizioak bereiztea, haien ezaugarri eta propietateen arabera.

EI4.1 Aurkezteko eta biltzeko modu ezberdinak eta biltegitratze- eta garraio-eskakizunak erlazionatzea.

EI4.2 Ehun-materialen edukari, manipulazioari eta kontserbazioari buruzko etiketa normalizatuak interpretatzea.

EI4.3 Biltegian izan beharreko kontserbazio-kondizioak adieraztea —tenperatura, hezetasuna, argia, aireztapena, etab.—, ehun-materialak egoera onean izateko

EI4.4 Material eta produktuen karga-, desplazamendu- eta deskarga-eragiketak egitea, kontuan hartuz laneko arriskuak prebenitzeko neurriak eta lan-inguruneak seinaleak.

Edukiak

1. Ehun-zuntzen identifikazioa.

- Ehun-zuntz motak.
 - Zuntz naturalak.
 - Zuntz artifizialak.
 - Zuntz sintetikoak.
- Ehun zuntzak eskuratzea eta fabrikatzea.
- Ehun-zuntzen propietateak.
 - Ukitua, dirdira eta kolorea.
 - Beroaren kontserbazioa.
 - Hezetasunaren absortzioa.
 - Elastikotasuna.
 - Zahartzearekiko erresistentzia.
 - Abrasioarekiko erresistentzia.
 - Trakzioarekiko erresistentzia.
 - Erresistentzia kimikoa.
 - Eguzki-argiarekiko erresistentzia.
 - Erreaktibotasun kimikoa.
- Ehun-zuntzak ezagutzeko oinarritzko teknikak.
 - Begizko ikuskapena.
 - Entsegu pirognostikoak.
 - Azterketa mikroskopikoa.

2. Ehun-produktuak erabiltzea errezelak eta estoreak egiteko

- Hariak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
 - Harien zenbaketa.
 - Bihurdura. Propietateak.
 - Haria sortzeko prozesua. Irutea.
 - Hariak identifikatzea, entsegu errazen bidez.
 - Jantzigintzarako hariaren espezifikazioak.
- Ehunak. Ezaugarriak eta aplikazioak.
 - Zulo-brodatuzko ehunak. Lotura nagusiak.
 - Puntuzko ehunak.
 - Ehundu gabeko oihalak.
 - Ehunak ezagutzeko oinarritzko metodoak.
- Errezelak eta dekorazio-osagarriak egiteko material espezifikokoak.
 - Ehun eta material laminatuak.
 - Horniak eta material osagarriak.
 - Betegarriak.
 - Osagarri eta/edo osagai aurrefabrikatuak.

3. Ehunak hobetzeko eta aprestu eta akaberak egiteko tratamenduak

- Ehunak hobetzeko moduak.
 - Zuritzea.
 - Tindatzea.
 - Estantpatzea.
- Ehunen aprestu- eta akabera-eragiketak.
 - Ohiko eragiketak.
 - Proteina-zuntzen eragiketa espezifikokoak.
 - Zelulosa-ehunen eragiketak.
 - Ehun sintetikoaren eragiketak.
- Ehuna hobetzeko eta aprestua eta akabera egiteko tratamenduek ehunei ematen dizkieten ezaugarriak.
 - Estetika.
 - Iraunkortasuna.

- Erosotasuna.
- Itxura mantentzea.

4. Ehun-gaien aurkezpena, kontserbazioa eta biltegitzea.

- Ehun-gaien aurkezpena eta paketatzea.
- Ehun-gaien eduki, manipulazio eta kontserbazioari buruzko normalizazioa:
 - Konposizioari buruzko etiketatzea.
 - Kontserbazioari buruzko etiketatzea.
 - Legezko hezetasun-tasa.
- Ehun-gaiak biltegitzeko kondizioak.
- Kargak garraiatzearen eta biltegitzearen segurtasunari buruzko Europako eta Espainiako araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Errezelak eta dekorazio-osagarriak